

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure ehorztetxeak heriotzaren inguruko ikuspegia humanizatu eta bizitza eta heriotza harmonian uztartzen dituen espazio bat eskaintzen du. Zerbitzu berezi, zintzo eta emozionalki lagungarri bat eskaini nahi dugu, gizartean heriotzaren inguruan dauden aurreiritziak apurtuz eta ikuspegi berri bat sustatuz.

"Hutsargi" izena euskarazko hitz-jokoa da, "huts" (hutsunea) eta "argi" (argia) hitzak konbinatuz, "argi hutsunean" edo "hutsunean argia" adierazten duena. Honek, galera momentuetan, itzalaren aurrean itxaropena eta bakea irudikatzen ditu. Gure enpresaren izenak zentzu sakon eta ukitua du, heriotzaren eta doluaren prozesuan argia aurkitzeko aukera ematen duena.

ZERGATIK GARA BEREZIAK?

1. Pertsonalizazio erabatekoa: Heriotza une berezi eta bakar bat bezala ulertzen dugu, non zerbitzuak guztiz pertsonalizatzen diren, bezeroaren edo haren senideen nahi eta sinesmenetara egokituz. Gure hiletak ezin gehiago pertsonaliza daitezke, eta zeremoniaren edo ohoretako ekitaldien estiloa edozein kulturarekin edo sinesmenarekin bat etor daiteke.

2. Laguntza psikologiko eta espiritual: Zerbitzua bezeroen une emozional zailetan laguntzeko diseinatuta dago, eta psikologo eta espezializatutako aholkularien eskutik babes emozional eta espiritual eskaintzen dugu dolua prozesatzeko.



3. Multikulturalitatea eta aniztasuna errespetatzea: Erlijio, kultura eta tradizio guztiak errespetatzen ditugu. Zeremonia bakoitza bezeroaren sinesmen eta tradizioetan oinarritzen dugu, familia eta senideei benetako errespetua eta babesa eskainiz.

4. Ekitaldi esparru bereziak eta zerbitzu gehigarriak: Gure zeremonietarako areto tematiko eta ingurune naturalak eskaintzen ditugu, giro pertsonalizatua eta bakarra lortzeko. Musikarien, kultur ekitaldien, lore dekorazioaren eta catering zerbitzuaren bidez, zeremonia guztiz pertsonalizatuak eskaintzen dira, ohorezko ekitaldi bat sortuz.

5. Ikuspegi ekologikoa eta iraunkorra: Hilketza ekologikoak, oroigarri jasagarriak eta ingurumenarekiko errespetuzko zerbitzuak eskaintzen ditugu, lurrarekiko eta bizitza-zikloarekiko konpromisoa sustatuz.

6. Kostu eta prezio lehiakorrak: Gure zerbitzuak prezio lehiakor eta eskuragarrietan eskaintzen ditugu. Gardentasuna bermatzen dugu aurrekontuetan, kostu ezkuturik gabe. Gainera, finantziazio-plan malguak eskaintzen ditugu familiek estres gutxiago izan dezaten.

7. Lana erraztea: Izapide administratibo eta legalak egiteko laguntza eskaintzen dugu, familiek eta senideek beren arreta emozioetan jarri ahal izan dezaten. Gure taldeak zeremoniaren antolaketa guztia kudeatuko du, prozesua ahalik eta arinena izan dadin.

8. Erabilerraztasuna eta eskuragarritasuna: Zerbitzuak erraz kontratatzeko aukera dute, aurrez aurre, hala ere, online plataformen bidez informazioa lortu dezakete. Gure 24 orduko arreta-zerbitzuarekin, edozein beharrei berehala erantzuten diegu. Hainbat hizkuntza eta kultura hartzen ditugu kontuan, mundu anitz eta inklusiboa sustatzeko.

9. Arriskuen murrizketa: Gure zerbitzuek familia eta senideentzako estresa eta ardura guztiak murrizten dituzte, izapide legal eta logistikoak kudeatuz. Gure taldeak lasaitasuna eta konfiantza eskaintzen du, prozesu osoan lagunduz.

NOLA LAGUNDUKO DUGU?

Tanatopraktore, psikologo, eta dolu-espezialisten talde bat izango dugu, senide eta lagunei une horretan arreta eta laguntza eskaintzeko. Zeremonia guztien antolaketan, gure taldea bezeroaren aldamenean izango da, une oro enpatia eta errespetua erakutsiz.

Horrela, ez da ohiko ehorztetxe bat izango; heriotzari begirada humanizatuagoa eta ikuspegi berritzailea emango dio, zerbitzu oso eta zaindu bat eskainiz, dolua



HUTSARGI
BAKEAN BETI

prozesatzeko laguntza emozionalarekin eta guztiz pertsonalizatuta, bakean eta harmonian oinarrituta.